

Denbora.

D	E	S	F	U	P	Ñ	Q	H
A	F	X	I	L	E	U	H	J
L	A	J	M	S	K	R	O	H
K	I	K	I	T	U	L	F	O
I	K	H	T	F	G	B	H	N
Z	H	E	R	N	A	N	I	D
A	L	D	E	F	Z	U	K	A
P	Ñ	S	R	N	Y	A	L	R
A	S	A	T	B	E	B	I	R
G	E	N	A	I	U	M	X	I
E	Z	G	D	K	G	S	O	B
Z	T	A	D	F	G	S	M	I
K	U	S	E	G	U	R	A	A
R	A	I	R	F	G	E	I	T
A	R	A	H	F	D	A	U	R
E	A	C	T	F	S	R	R	E
A	Z	I	B	O	M	H	A	L
T	A	R	L	F	L	D	K	E
L	D	O	D	F	G	G	T	N
Z	T	C	D	F	K	H	Z	R
A	I	P	Z	A	G	E	L	B



2

Hizki salda


Jokinek Gipuzkoako hainbat herri eta txoko bisitatu ditu oporretan. Herrien izenak hizki salda honetan daude, nahasian. **Begiratu arretaz, eta ea Gipuzkoako 7 herriren izenak topatzen dituzun.**

3 Asmatu eta margotu

Irakurri ongi galderak, eta erantzun egokia eman.

Ondoren, margotu marrazkiko laukia zehazten den kolorearekin.

Erantzunak asmatu badituzu, irudi bat ezkututzen dela ohartuko zara. Zer dago ezkutuan?



1.- Aurtengo Nafarroa Oinez-eko maskota zein animalia da?

(Erantzun egokia urdinez margotu).

- 1.- Saia.
- 2.- Txantxangorria.
- 3.- Belea.

2.- Noiz izaten da Donostiako danborrada?

(Erantzun egokia urdinez margotu).

- 4.- Ekainaren 21ean.
- 5.- Martxoaren 8an.
- 6.- Urtarrilaren 20an.

3.- Zenbat ordaindu zuten Ordiziako gazta lehiaketako gazta erdiaren truk?

(Erantzun egokia horiz margotu).

- 7.- 200 euro.
- 8.- 5.100 euro.
- 9.- 7.500 euro.

4.- Non egingo da aurtengo kilometroak jaia?

(Erantzun egokia horiz margotu).

- 10.- Azpeitian.
- 11.- Pasaian.
- 12.- Lazkaon.

5.- Noiz hasten da sagardo denboraldia?

(Erantzun egokia urdinez margotu).

- 13.- Urtarrilaren 19an.
- 14.- Maiatzaren 1ean.

15.- Abenduaren 6an.

6.- Zein herritan dago dinosauroak ikus daitezkeen parkea?

(Erantzun egokia urdinez margotu).

- 16.- Donostian.
- 17.- Elorrión.
- 18.- Karrantzan.


-pasa

4 Itzalak

Nerea udalekuetan izan da udako oporretan. Bertan lagun bizkaitar ugari egin ditu. Hizki hauek ordena egokian jartzen badituzu, Nerearen lagunak nongoak diren jakingo duzu. **Bizkaiko zein herritakoak ziren?**

MNGAIU
DGURANO
KREINGA
ZLALA

5 Aurkitu irudian




Jonek gustuko du futboleko jokatzea, eta amarekin, baloi berri bat erostera joan da dendara. Askotariko baloiak zeuden, eta aukeratu ezinik ibili da. Hona hemen dendan zeuden baloi batzuk. **Ongi begiratzen badiezu, hiru errepikatzen direla ohartuko zara.**

Erantzunak: 1.-E hizkia. 2.-Hernani, Segura, Tolosa, Alkiza, Hondarribia, Zarautz eta Legazpi. 3.-Tronpeteta. 4.-Mungia, Durango, Gernika eta Zalla.

Ontzia

Betiko ontziak erabiltzeaz aspertua al zaude? Irudimena erabiliz, ontziak zure gustura apain ditzakegu. Apaingarri gisa edo oparitzeko erabil ditzakezu.



Beharrezko materiala

- Plastikozko ontzia.
- Egunkari papera.
- Paper orea.
- Kola.
- Mastika edo orea.
- Pintura zuria, urdina eta laranja.
- Pintzelak.

Egiteko modua



- 1 Egunkari orriak hartu, eta zerrendatan moztuko ditugu. Plastikozko ontzia moztutako egunkari zerrendekin estaliko dugu. Geruza bat baino gehiago egingo ditugu. Egunkari zerrenden geruzen artean kola emango dugu, pintzelez baliatuz.



- 2 Egunkari paperek lodiera nahikoa hartzen dutenean, ontzitik kanpora geratzen diren paper zatiak tolestuko ditugu.



- 3 Ongi lehortzen denean, egunkari zatiak ontzitik aterako ditugu. Plastikozko ontzi hori eredu gisa erabiliko dugu soilik. Ontziari ertz sendoa egiteko, paper orea erabiliko dugu.



- 4 Pintzelen laguntzarekin, ontziari mastika eskualdi bat emango diogu. Lehortzen denean, ontzia laranja kolorez margotuko dugu, eta ertzak, aldiz, urdinez eta zuriz.



- 5 Ia-ia amaitu dugu ontzia. Orain, norberak gustuko apaingarriak, marrazkiak eta irudiak egingo dizkio ontziari.